



**IKASTETXEKO
HEZKUNTZA PROIEKTUA**

HEZKUNTZA PROIEKTUA

AURKIBIDEA

| | |
|-------------------------------------|----|
| 1. IDENTITATEA | 3 |
| 2. XEDEA ETA IKUSPENA | 5 |
| 3. HELBURUAK | 6 |
| 4. BALIOAK | 8 |
| 5. ANTOLAKETA | 11 |
| 6. IKASLEAREN PROFILA | 13 |
| 7. METODOLOGIA | 14 |
| 8. EBALUAZIOA | 16 |
| 9. ANIZTASUNARI ARRETA | 18 |
| 10. TUTORETZA ETA ORIENTAZIOA | 20 |

HEZKUNTZA PROIEKTUA

SARRERA

Artxandape Ikastolako Hezkuntza Komunitatea osatzen dugun pertsonak Hezkuntza Proiektu hau egin dugu. Honetan gure identitate ezaugarriak zehazten ditugu, hezkuntza asmo batzuetan adierazita.

Hezkuntza Proiektu honek, Elizbarrutiko Ikastetxeen izaeran oinarrituta, gure hezkuntza jarduera, eta baita kurrikular eta antolaketa erabaki guztiak ere bideratzen ditu; irekia da eta alda daiteke.

IDENTITATEA

Artxandape Ikastolako ezaugarriak:

ELIZBARRUTIKO IKASTETXEA:

Bilboko Elizbarrutiak sustatua, Herri Administrazioaren aurrean Irakaskuntzaren Gotzain Ordezkaritzak daukalarik.

Haur, Lehenengo eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza osotasunean euskaraz ematen ditu (D eredua)

Familia askok adierazten duten kristau hezkuntzaren nahia betetzen du, dena den guztiei zabalik dago.

GIZARTE-KULTUR INGURUNEAN BERTAKOTUA

Euskal Herriaren kultur errealitatea eta ohiturak kontuan hartuz, hezkuntza eginkizunak garatzen ditu. Hau dela eta, Olentzero, Santa Ageda,... jai tradizionalak begi emango diegu, baita Curriculumean agertu beharreko jakingaien ere (Euskal Herriko historia, mitologia, kirola, musika etab.)

PERTSONAREN ZERBITZURA

Arreta pertsonala eta hurbiltasuna lehenesten ditugu, giza eta kristau baloreetan hezten, pertsonen jarrera positiboak sustatzen.

Gure proiektuak ikaslea bere buruaren jabe, pertsona aske eta arduratsua izan dadin nahi du.

HEZKUNTZA PROIEKTUA

GIZARTEAREN ZERBITZURA

Hezkuntza Komunitate hau osotzen dugunok, gizartearen aldaketa, gizabanakoaren oinarrizko eskubideen begirune eta sustapenaren ardura hartzen dugu.

GURE GARAIKO KULTURAN ERROTUA

Iraganeko kultur ondarea ahaztu gabe, kristau fedearen baloreetatik abiatuz, gure garaiko zein inguruneko kultur adierazpen desberdinen barrurapen sistematiko eta kritikoa eginez, hezteko asmoa dugu.

BALIOEN KOHERENTZIAN OINARRITUA

Ikasleek bizitzan gero eta konpromiso gehiago har ditzaten, baloreetan oinarritutako hautapen libre eta arduratsuak egin ditzaten.

KRISTAU IKUSPEGITIK

Gizabanako eta taldeko ardura bultzatzea, bai giza arazoez, bai erantzukizunez jabetzea gizarte justua lor dezagun.

HEZKUNTZA PROIEKTUA

XEDEA

Bizkaiko Elizbarrutiko ikastetxea den Artxandape Ikastolaren xedea hauxe da:

- Ikasle eta familien zerbitzura dagoen hezkuntza osoa, eleanitza eta kalitatezkoa eskaini.
- Euskal kultura, euskara eta Ebanjelioaren baloreak erreferenteak izan.

IKUSPENA

Erreferente ikastola izan nahi dugu hurrengo izateagatik:

- Bere ikasketaren protagonista den, ilusionatua dagoen eta solidarioa den ikasleria.
- Hezkuntza komunitate inplikaturik eta laguntzailea.
- Teknologia berriak eta konpetentzien garapenaren bidezko ikasketa eragiten duten metodologia berritzaileak.
- Pertsona konprometituak, aseak eta proiektu berrietan parte-hartzaileak.
- Kudeaketa aurreratua eta behar diren baliabideak.

HEZKUNTZA PROIEKTUA

HELBURUAK

Hauek dira Artxandape Ikastola lortu nahi dituen **helburuak**:

- Ikaslea bere nortasunaren garapen oso, integral eta harmoniatsura irits dadin gaitzea, banan-banako prestakuntzaren eta askatasunari egokitutako pedagogiaren bitartez, bere bizitza pertsonaleko, familiako, gizarteko eta lanbideko eremu guztietan nortasun hori gara dezan.
- Ikaslea/taldea/ikastetxea gizarte, ekonomi eta kultur ingurunearekin harremanetan jartzea, hurrengo xede hauek erraztuko dituen irekiera eta komunikazio moduen bitartez:
 - o Euskal Herriaren eta Bizkaiaren testuinguru soziokulturalean eta tradizio historikoan oinarrituriko heziketa, horren balio guztiak barne hartuz.
 - o Bertako gertakarien eta egoeren balorazio kritikoa eta eraikitzailea..
- Hala adimen gaitasunak eta lan teknikak, nola heziketa zientifikoa eta humanistikoa era orekatuan garatzea, ekimenak eta ahalmen sortzailea bereziki baloratu eta bultzatuz.
- Irekitasunean eta beste herri eta kultura batzuen aintzatestenean heztea, balioen aniztasuna aldi berean komunikatzen eta hartzen jakiteko, lankidetzako eta bakezko elkartasun gogotik abiatuz.
- Benetako maitasunean oinarritu eta hezkuntza-komunitatean nahiz gizarte-bizitzan parte hartzera bultzatuko duten harreman pertsonalen eta portaera-ohituren jokamolde bat lantzea.
- Gizabanakoaren, munduaren eta historiaren kristau ikuspegi bat proposatzea, fedearen eta kultura aldakorraren arteko etengabeko elkarriketa finkatuz, Ebanjelioko balioen araberrako bizimoldea sustatuz eta konpromiso eraldatzailerako bultzatzen duen gizarte-kontzientzian heziz.

HEZKUNTZA PROIEKTUA

- Tokiko eta mundu osoko Elizaren partaide izatearen sena balioztatzen laguntzen duten fede-bizipenak eta haurridetasun-adierazpenak sustatzea.
- Eskubideen berdintasunean hezi, sexu edo izate sozialeko inolako bereizkeria barik.
- Ingurumenarekiko begirune, kontu eta hobekuntzan hezi, ingurumenarekiko bakarkako eta taldeko sentikortasuna garatuz eta kontsumo orekatu baterako kontzientziatzen saiatuz.
- Gaitasun eraginkorra sustatu, pertsona bakoitzaren ahalbideak ahalik eta gehien garatuz.
- Izpiritu kritiko eraikitzailea landu, arazoen konponketarantz edo hautabide berrietarantz bideratuz.

BALIOAK

Gure identitatea kontuan hartuz, aukera libre eta erantzuleak egitera eta beren bizitzari zentzua emango dioten balioetara zabalik dagoen hierarkia bereganatzera bultzatu nahi ditugu ikasleak.

Ikasleak izaten, elkarbizitzen eta partekatzen ikas dezaten errazten dugu. Balioen heziketa bizi behar da. Ikastolaren irakaskuntza eta ikaskuntza jarduera guztiak nabarmendu egiten dugun balio proposamen honetan oinarritu behar da.

ARRETA AHULARI

Zailtasunen bat edo aparteko beharizanen bat (pertsonek, hartu-emanen, arlo akademikoan, lanean, ekonomian ...) daukanari lagundu eta aukerak eskaini.

Balio hau garatzeko, hurrengo ekintza eta jokabideak zehazten dira:

- Banan-banako curriculum-egokitzapenak egin (zailtasun akademikoak).
- Une kritikoetan erabiltzen dituzten zerbitzuei aurre egiterik ez daukaten edo zerbitzuak ordaindu ezin dituzten familiei laguntza eman.
- Adin txikikoen eskubideen aurkako eraso eta jazarpenak antzeman, batez ere ahultasun egoeran daudenak.
- Enpatikoa izan langileen egoera kritikoetan (baimenak senideak gaixo daudenean, aparteko egoerak...).
- Gizarte laguntza eta lankidetzarako erakundeekin elkarlanean jardun.

ALKARTASUNA

Baldintza gabeko atxikimendua eta elkartasuna besteei behar gaituenean.

Balio hau garatzeko, hurrengo ekintza eta jokabideak zehazten dira:

- Ezagutzak eta baliabide material eta pertsonalak konpartitu.
- Prestutasuna besteen (ikasleak, familiak, kideak, beste ikastetxe batzuk, Titularra, inguru sozial eta naturala) beharizanei.
- Caritas erakunde solidarioarekin elkarlanean jardun.
- Beste pertsona eta gizatalde batzuen sineste, jarrera, biziera eta abarren ulerkuntza eta begirunea.

HEZKUNTZA PROIEKTUA

TALDE LANA

Pertsona guztiek ardura-kidetasunez, helburuetan bat eginez, kide guztien iritzia kontuan hartuz eta koordinazio onaren bidez giro ona sortuz egiten duten lana.

Balio hau garatzeko, hurrengo ekintza eta jokabideak zehazten dira:

- Erantzukizuna eta taldean norbere gain hartutako eginkizunak bete.
- Eginkizunak esleitu ondoren, saioak koordinatu (lan kooperatiboa).
- Konfiantza eta gogobetetasuna egindako lanaren inguruan.

KONPROMISOA

Erantzukizuna, Elizbarrutiko Ikastetxeen Xedea, Ikuspena eta Balioekiko koherentziaz jarduteko, familiei, langileei, Titularrari eta gizarteari dagokienez, horrela konfiantza sortuz.

Balio hau garatzeko, hurrengo ekintza eta jokabideak zehazten dira:

- Elizbarrutiko jardueretan (pastoral ikasturtearen hasiera, Elizbarrutiko Zeinua, Bake Topaketa...) parte hartu eta Pastoral Barrutietan esku hartu eta haiekin koordinatu.
- Hurkotasuna bakarka zein familian zailtasunak daudenean.
- Balio ebanjelikoen (zerbitzua, eskuzabaltasuna, zintzotasuna, errukia, espiritualtasuna...) testigantza
- Konpromisoa ikastetxearen egitasmoan.

HEZKUNTZA PROIEKTUA

BIKAINASUNA

Hezkuntza erakundearen etengabeko hobekuntza bilatu, gaitasunak garatuz, sormena eta berrikuntza sustatuz.

Balio hau garatzeko, hurrengo ekintza eta jokabideak zehazten dira:

- Profesionaltasuna erakutsi, irakasteko moldea, familiekin harremana, etengabeko heziketa eta berrikuntza zaindu.
- Hezkuntza-bikaintasunaren inguruko eztabaida-leku eta erakundeetan parte hartu.
- Jarduera onak bilatu eta garatu.

BERRIKUNTZA

Hezkuntzaren arloko berrikuntza eta etengabeko hobekuntzari dagokionez jakin mina eta gozamina ekarriko duten konponbideak sortu.

Balio hau garatzeko, hurrengo ekintza eta jokabideak zehazten dira:

- Gaur egungo hezkuntza-ikerketen ezagutu.
- Berrikuntza sustatzen duten erakundeak bisitatu
- Berrikuntzari lotutako gaietan hezi.
- Jarduera berritzaileak martxan jarri.
- Jarduera berritzaileen emaitza ebaluatu.

ANTOLAKETA

Eraketak batasunezko izaera du, hezkuntza planteamendu parte hartzailea nabari dena: familiak, irakasleak, ikasleak, zerbitzuetako pertsonala eta ikastetxeko titularra batzen ditu hezkuntza-komunitate barruan, eta horiek denak batera ahaleginduko dira Ikastolaren helburu orokorrak lortzen.

Maila bi daude:

Gobernu mailan, azken batean:

- Ildo nagusiak finkatzen dira.
- Planak onartzen dira.
- Garapena eta emaitzak ebaluatzen dira.

Funtzionamendu mailan: ekintzak burutzen dira, gobernu organoak ezarritako ildoak jarraituz, hauek planak onartu eta haien garapena ebaluatzen dute.

Ikastolaren gobernuan hartzen dute parte:

- **Organo kolegiatuak:**
 - Eskola Kontseilua.
 - Zuzendaritza Taldea.
- **Pertsona bakarreko organoak:**
 - Titularra.
 - Zuzendaria.

HEZKUNTZA PROIEKTUA

Funtzionamendu egiturak arlo bi ditu:

Pedagogia arloa: Hauxe da funtsezkoena eta Ikastolari bere izateren zentzua ematen diona. Irakaskuntza eta hezkuntza lan guztia hartzen du, kristau baloreetan oinarrituta, ikasleen protagonismoa bultzatzera zuzenduriko eskola eta eskolaz kanpoko jarduerak hartzen ditu, haiek beren heldutasuna lor dezaten pertsona gisa.

- **Zuzendaritza organoak:**
 - Ikasketa burua.
 - Etapa koordinatzaileak.
 - Saitetako buruak.

- **Ikastolaren funtzionamenduan parte hartzen duten beste organo batzuk:**
 - Klaustroa.
 - Zikloetako koordinatzaileak.
 - Irakasle-tutorea.
 - Aholkulari-orientatzaile.
 - Prozesu/proiektu arduradunak

- **Ekonomiko-administrazio arloa.** Laguntza arloa da eta Ikastolaren administrazioaz eta zerbitzuez arduratzen da.

Organo guztien funtzioak Barne Araudian zehaztuta daude.

Organo ezberdinetako kideen hautaketa indarrean dauden lege eta arauen arabera egingo da, eta pertsona bakoitzak bere taldea hautatzearen printzipioan oinarrituko da, Eskola Kontseilua izan ezik, ordezkaritza-organoa baita.

IKASLEAREN PROFILA

Ikastolan amaitzen dutenean, ikasleek lortu behar duten profilak hurrengo ezaugarriak izango ditu:

- Askotariko tresnen bidez (digitalak nahiz ez-digitalak) eta edozein testuingurutan komunikatzen ditu ideiak. [berdinen artean, helduekin, jendaurrean, elkarrizketetan]
- Informazioa egoki kudeatzetik abiatuta, errealitatea ulertzen eta interpretatzen du.
- Identifikatzen du zer indar-gune eta ahulgune dituen.
- Bere ikaskuntza-prozesuaz kontzientea izanda ikasten du, hura ebaluatuz eta auto erregulatuz.
- Analitikoa eta kritikoa da, eta sormena agertzen du.
- Jakin-mina asetzeko, bere artean galderak egin eta erantzunak bilatzen ditu.
- Onartzen eta aintzat hartzen du lankidetzat, bai bere xedeak, bai taldearen xedeak betetzeko baliabide gisa.
- Ekimena agertzen du, eta proiektuei ekiteko gai da, ideiak emanda, zereginak planifikatuta eta beteta, eta prozesua bera eta emaitza ebaluatuta.
- Pertsona autonomoa da, bere buruarengan konfiantza eta besteekiko enpatia erakusten ditu, bizi-ohitura osasungarriak ditu eta bere portaera eta emozioak auto erregulatzen ditu.
- Pertsona gogoetatsua da: bere barrua, pentsamenduak eta ekintzak aztertzen ditu.
- Errealista eta bere buruarekin zintzoa da nolakoa den ikustean, eta badaki zer nahi duen, horren arabera jokatzeko.
- Sentiberatasuna agertzen du euskararekin eta euskal kulturarekin, bai eta Elizbarrutiko Ikastola gisa identifikatzen gaituzten balioekin.

METODOLOGIA

Metodologia-printzipio hauetatik abiatuta lortuko dira helburuak:

- **Ikaskuntza esanguratsua:** eduki berriak eta prozedurak ikasleak dakienarekin uztartu behar dira, eta eduki horiek egoera berrietara aplikatu.
- **Ikasleek izan behar dute euren garapenaren protagonista nagusiak:** ikasleek gai izan behar dute erabakiak hartzeko, denbora antolatzeko eta beren lana ebaluatzeko.
- **Gaitasun guztiak garatzea** (kognitiboak, afektiboak, adierazpenekoak, mugimenduari lotutakoak eta sozialak) izango da ikaskuntzaren helburu nagusia, aldian aldiko beharrezan eta konpetentzia guztiak kontuan hartuta.
- **Ikasten ikastea sustatuko da**, ikasleak bizitzan zehar ikasten jarraitzeko gaitasunak garatzeko.
- **Ikaslearen lan autonomia hobetsiko da**, horrek lagunduko baitio bere buruari galderak egiten eta hainbat informazio-iturri erabilia erantzunak bilatzen.
- **Ikasteko eta lana antolatzeko teknikak eskainiko zaizkio** ikasleari, horrela lortuko baitu ikaskuntza-prozesuan egiten dituen ahaleginak eraginkorragoak izatea.
- **Aniztasunari erantzuteko, ikaskuntza integratzailea:** Horretarako, tutore bakoitza, ikasleen ezaugarriak eta haien arteko aldeak zein diren antzeman, eta haien premiei erantzuten saiatuko da, tratamendu prebentiboaren bidez eta curriculumak egokituta. Tutoreek, orientatzaileekin batera, ezarriko dute tutoretza-lanak zer funtzio eta helburu dituen etapa bakoitzean, eta zer baliabide erabiliko diren.
- **Talde-lana bultzatuko da**, bai irakasleen, bai ikasleen artean, lanean koordinazioa eta lankidetzak bultzatzeko, ikaskuntza eraginkorrago izateko, eta prozesuan parte hartzen duten guztien asebetetze-maila igotzeko.
- **Euskara-maila ona lortzeko**, baliabide eta didaktika egokiak eskainiko zaizkio ikasleari, hizkuntza bere eginda komunikatzeko eta harremanetarako modu naturalean erabili dezan.

HEZKUNTZA PROIEKTUA

Denboraren antolaketa

Ikasleen denbora osoa jotzen dugu hezteko denboratzat; izan ere, ikasleak bere ezagutza esperientzien bidez eraikitzen du. Beraz, ikasleak zeregin akademikoetan erabiltzen duenaz gain, aisialdia ere bada hezkuntza-denbora.

Denboraren banaketak malgua izan behar du, eta hezkuntza-helburuen eta giza baliabideen nahiz baliabide materialen zerbitzura egon behar du.

Eskola saioaren denbora honela antolatuko da: aurkezpena, “denbora tarte”, jarduera nagusia eta itxiera (metakognizioa).

Arlo guztietan, asteko eta egun bakoitzeko denbora banatzeko, honako zeregin hauek hartuko dira kontuan: aurkezpen-azalpenak, lan pertsonala, talde-lana, zuzenketak...

DBHn, ikasleak ez dira egoten batera arlo guztietan, aukera baitute haietako zenbait aukeratzeko. Bada, DBHn ere, aurreko puntuko zereginak bideratzeko moduan diseinatuko da denboraren banaketa.

Ordutegiak egiterakoan, kontuan hartuko da biltzeko tarte bat izan behar dutela lanak elkarrekin egin eta erabaki bateratuak hartu behar dituzten irakasleek.

Irakasleak denbora behar du programaziorako, eskolako zereginak eta materialak prestatzeko, talde jakin batzuetan egokitzapenak egiteko, gurasoekin hitz egiteko...

HEZKUNTZA PROIEKTUA

Espazioen antolaketa

Espazioen antolaketa malgua izango da, eta ikasle-talde bakoitzaren premia, interes eta ahalmenei egokitua.

Espazioari berebiziko garrantzia ematen diogu, ikasleen arteko harremanak errazteko eta giro ona sortzeko ezinbesteko baldintzat hartzen dugulako.

Giroa, gure ikuspuntutik, ikaskuntzaren testuingurua da. Beraz, hezkuntza-espazioak ez dira eratuko eredu bakarraren arabera, baizik eta ikasleen eskaerei moldatuta.

Ikasgela antolatzerakoan, **ezinbestean hartuko dira kontuan** hauek:

- Ikasteko beharrei egokituta banatu behar da espazioa.
- Espazio interaktiboak sortu behar dira, elkarlana eta ikasleen arteko elkarreragina sustatzeko.
- Ikasgela espazio didaktikotzat jotzen dugu, eta indartu behar dugu balio hori. Horretarako, zeregin hauek bideratzeko moduan antolatu behar da: lanen aurkezpenak eta azalpenak, ikasleek beren ideiak zabaldu eta partekatzea (edozein delarik ere euskarria: ikus-entzunezkoa, ahozkoa, idatzizkoa...), ikasteko objektuak era autonomoan erabiltzea (liburuak, mikroskopioa, asmakizunak edo proiektuak...) eta ikasleak naturarekin kontaktuan egotea.
- Espazio eroso eta atsegina sortu behar da guztiontzat; espazio bizia, etengabe eraikitzen eta egokitzen joango dena: aniztasunari erantzungo diona, sormena piztu eta askotariko adimenak eta ikasleen trebetasunak indartuko dituena.
- Konpetentzia digitala garatzen laguntzeko, IKTen erabilera sustatuko da.
- Besteak beste, honelako jarduerak egingo dira: informazioa sarean bilatu, bideoak eta baliabide interaktiboak ikusi, material digitalak egin eta lanak aurkezteko diapositibak eta bestelako tresnak erabili.

EBALUAZIOA

Ebaluazioa, Hezkuntza prozesuaren zerbitzura dagoen jarduera sistematiko eta etengabekotzat hartzen dugu. Bere xedea prozesuaren inguruko egiazko informazioa biltzea da, bere hobekuntzan laguntzeko, egitarauak, ikas teknikak, baliabideak, metodoak eta prozesuaren elementu guztiak barne.

Ikasleen ikasketen ebaluazioaren helburua zera da: irakaskuntza prozesuaren ondorioz izan diren aldaketa edo lortutako emaitzak ebaluatzea. Lagungarria izan behar da ikasketaren kalitatea igotzeko eta ikasleen errendimendua handitzeko.

Ebaluazioa ez da Hezkuntza prozesutik dagoen aparteko jarduera bat, Hezkuntza zereginari erantsita eta aldiberekoa dena, baizik.

Etengabeko ebaluazioak ikasketa prozesu osoa kontuan hartzen du, eta bai irakasleari, bai ikasleari edo prozesuaren garapenari dagokio. Erabiliko ditugun ebaluazio motak hurrengoak dira:

Ebaluazio diagnostikoa edo hasierakoa

Ikasleak izan behar duen aurretiko gaitasunen maila zehazteko erabiltzen da ikasketa prozesua hasteko.

Ikas maila baten hasieran egiten da, edo prozesuaren zehar ikasle batek zailtasunen bat duela zalantzak daudenean. Ikasturtearen hasieran egin daiteke, eta baita unitate didaktiko baten hasieran ere.

Ebaluazio hezigarria edo prozesukoa

Honen bidez ikaslearen aurrerapenaren informazioa batzen da, ikasketa prozesuaren zehar eta ikasketa arazo arrunten identifikazioa, jardueren bidez konpontzeko eta berreskurapena antolatzeko. Ikasketa prozesu osoaren zehar egiten da.

Ebaluazio batutzailea edo finala

Prozesuaren zehaztutako etapa bat, txikia ala handia, amaitu dela ziurtatzen duena da.

Hiru hilabete, ikasturtea edo ziklo baten amaieran gertatzen da.

Konpetentzietan oinarritutako ebaluazioa

Ikasleen ikasketa baloratzen da, haien gaitasunetan, trebetasunetan eta aurretiko ezagupenetan zentratuz, ikasgelan garatutako ikasketa benetan esanguratsua izateko eta ez bakarrik ulertu, ikasi eta ezagupena bereganatu ahal izateko ere.

Ebaluazioaren helburuak

- Ikaslea bere garapen-alderdi guztietan ezagutzea (alde psikologikoa, mugimendukoa, hitzezkoa...)
- Ikaslearen egoera bere buruarekiko eta taldearekiko aztertzea ikasketa prozesuan zehar.
- Irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren jarraipena egitea.
- Hezkuntza premiak zehaztea.
- Jarritako helburuak lortzeko erabili diren metodoak eta tresnak baloratzea.
- Irakaslearen jokaera auto-erregulatzea.
- Hezkuntza prozesu indibiduala eta kolektiboa orientatzea.
- Irakaskuntza praktika hobetzea.

Ebaluatuko diren alderdiak

- Ikasleen ikaskuntza prozesua.
- Irakaskuntza-ikaskuntza prozesua.
- Irakaskuntza praktika bera.
- Ikasketa-proiektua.

Ebaluazioan parte hartzaile eta arduradunak

Ebaluazioa, egitez, dagokion ikastaldearen irakasle guztiek egingo dute, talde horren tutoreak koordinatuta eta orientazio-departamentuaren aholkularitzarekin. Irakasle horiek era kolegiatuan jardungo dute ebaluazio prozesuan zehar eta dagozkien erabakiak hartuko dituzte.

Ebaluatzeko metodoak

Ikasleen ebaluazioan ahaleginduko gara metodo anitzak erabiltzen. Hurrengoak kontuan izango ditugu:

Behaketa ikasgelan (gida batekin eta gida barik), errubrikak, elkarrizketak, portfolioa, galdetegiak, proiektuak, lanak, ikasgelako koadernoak, auto-ebaluazioa, ikaskideen arteko ebaluazioa, ahozko eta idatzizko azterketak, ebaluazio dinamikoa edo interaktiboa (froga bat egin ondoren ikasketa denbora bat ematen da, irakaslearen laguntzarekin, eta gero bigarren froga bat egiten da).

ANIZTASUNARI ARRETA

Irakaskuntzak ikasleen artean aniztasunaren ezaugarria duen gizarte plural batean bizi garelarik, egokitzapenezko irakaskuntza burutuko dugu irakaskuntza/ikaskuntzako jardueren plangintza, garapena eta ebaluazioan, ikasleen gaitasunetara eta garapen indibidualaren maila desberdinetara egokituz.

Aniztasunari erantzuna

Gure hezkuntza-eredua abiapuntutzat hartuta -identitatea, hezkuntza integrala eta balioetan hezte-, koherentea deritzogu gizarte-integraziorako oinarrizko ikaskuntza den eskola-integrazioari erantzunak emateari.

Ekinbide honi esker, ikasleek derrigorrezko hezkuntzari dagozkion gaitasunak erdiets ditzakete, euren ahalbideen arabera eta norbere taldean ahalik gehien integratuz.

- Hezkuntza-premia soziokultural bereziak dituzten ikasleak.
- Ezintasun fisiko, psikiko edo sensorial bati lotutako hezkuntza premiak dituzten ikasleak.
- Aparteko gaitasunak dituzten ikasleak.

Tratamendu neurriak

Ikaslearen hezkuntza-premiei erantzuna emateko xedearekin ikasketa-plan edo curriculum komunaren osagai ezberdinetan egiten den edozein egokitzapen edo aldaketa da Curriculum Egokitzapena.

Egokitzapen motak

- Curriculumean sartu ahal izateko egokitzapenak.
- Esanguratsuak ez diren curriculum egokitzapenak (hezkuntza-errefortzua).
- Curriculum egokitzapen esanguratsuak (CEE/ACI).
- Curriculum desberdinak eratzea.

HEZKUNTZA PROIEKTUA

Curriculum egokitzapenaren faseak

| Plangintza edo diseinua | Didaktika ekinbidea |
|---|--|
| <ul style="list-style-type: none">• Diagnosi eta pronostiko ebaluazioa.• Arazoen eta zailtasunen azterketa.• Helburuen, edukien eta ebaluazio irizpideen finkapena. | <ul style="list-style-type: none">• Ikasgela barruan.• Laguntza-gela.• Ikasleak taldekatzea.• Irakaskuntza lanak. |

Curriculum egokitzapenaren helburuak

- Hezkuntza premia bereziak dituen ikasleari eskainiko zaion hezkuntza mota **definitzea**, lortuko diren irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren sekuentziak argi eta garbi zehaztuz.
- Baliabide konkretuen premia, hala giza baliabideena nola materialena, **zehaztea eta justifikatzea**, beharrezkotzat aurreikusten diren xedeak eta epeak finkatuz.
- Hezkuntza-jardueran parte hartzen duten profesional ezberdinen (tutorea, irakaslea, pedagogoa...) ekintza koordinatua **antolatzea**.

TUTORETZA ETA ORIENTABIDEA

Tutoretza: Ikastalde baten tutoreak bere gain hartzen duen hezkuntza eta orientazio lana, Orientazio Departamentuaren koordinazio eta laguntzarekin. Tutorea da ikastalde jakin baten orientazioaren arduradun zuzena.

Tutorearen funtzioak

Ikasleei begira:

- Ikasle bakoitzaren egiazko egoera, hala nola haren famili eta gizarte-ingurunea ezagutzea, bakoitzari bere garapenera eta heldutasunera iristen laguntzeko.
- Ikasleak beren ikaskuntza prozesuan orientatzea, euren ahalbideak hautematen eta garatzen, eta euren mugak onartzen lagunduz.
- DBHko ikasleak orientatzea beren etorkizunerako aurrean dituzten aukera ezberdinei buruz (hautazko irakasgaiak, ondorengo ikasketak, bizitza aktibora sartzea).

Gainerako irakasleei begira:

- Etengabeko harremana mantentzea bere ikasgelako ikasleen gainerako irakasleekin, guztion ekinbideak koordinatzeko.
- Bere kurtsoko ikasleen ebaluazio saioak eta errefortzu jarduerak.

Familiei begira:

- Gurasoekin harreman pertsonala mantentzea, aldiroko elkarrizketa eta batzarren bidez, laguntza-ekintzetan parte har dezaten eskatuz.
- Ikasleen eskola-aprobetxamenduaz eta hezkuntza-prozesuaz informazioa ematea familiei.

HEZKUNTZA PROIEKTUA

Orientazio sailaren funtzioak

Hezkuntza-premien hautemate eta **aurreikuspen lanak egitea**.

Ikasketarako zailtasunak, portaera eta integrazio arazoak, hezkuntza premia bereziak, etab., dituzten ikasleekin **banan-banan jardutea**, hala behar izanez gero.

Tutoreekin laguntza-lanak burutzea ikasketa-planen egokitzapenak, Ikastolaz kanpoko zerbitzuekin elkarrizketak (psikologo, logopeda, gizarte-laguntzaileekin...), eta abar egitean, denen artean egindako lan osagarria lortzeko.

Ikasleei **probak ezartzea**, era orokor eta sistematikoz, hala xedatuta dagoen kurtsoetan.